

HERRI ARTEKO PELOTA TXAPELKETAKO FINALA GAUR

Hernani bigarren txapelaren bila

■ Beste finalista Lasarte da, pronostiko guztiak hautsita sartu dena ■ Bi taldeak joku puntu onean daude eta seguruenera final gogorra izango da ■ Gaur 10:30etan, Donostiako Atano III pilotalekuan.

HERNANIK bigarren txapela lortu nahi du gaur Herri Arteko Pelota Txapelketan. Hernaniarrek Txapelketa borobila egin dute orain artekoan, eta faborito irtengo dira Lasarteren kontrako finalean.

Lasartearrak indarrean

Lasarteko taldea Azpeiti eta Azkoiti eliminatuta sartu da finalean, eta animoz indartuta daude. Hiru partiduetan gogorrak ikusten ditu Rufino Rekalde Pelota Elkarteko delegatuak: "Kadeteetan normalean irabazi egin beharko genuke; jubenetan oso partidu berdindua eta zaila izango da; eta nagusietan, Hernani gehiago bada ere, Lasarte oso txapelketa ona egiten ari da".

Partiduak: Kadeteetan: Arrieta-Gorrotxategi / Lizarra II-Urkia; Jubeniletan: Yubero-Alvarez / Aranburu-Lizarra I; eta Afizionatuetan: Erroizenea-Mendizabal / Urruzola-Landa. □



Hernaniko Pelotari taldea animoso. Ea San Joanak ospatzeko arrazoirik ekartzen duten!

Omenaldia eta Txupinazoa gaur San Joanen hasieran

■ Gaur 11:15etan, omenaldia egingo zaie Axeri Dantzako bost belaunaldiari ■ 12:00etan txupinazoa.

SAN Joanek gaur izango dute hasiera ofiziala, ostirala ezker herria festa giroan badago ere. Aurtengo Txupinazoa Axeri Dantzaren ibilitako 5 ordezkari botako dute, Jai Batzordearen omenaldia jaso ondoren. Luis Gorrotxategi, Imanol Larretxea, Segundo Ale-

jos, Juan García de Bikuña eta Amaia Martinez dira gerra ostetik gaur arte Axeri Dantza bizirik mantendu duten belaunaldien ordezkari.

San Joanak gaur hasi eta datorren ostegunean bukatuko dira 24:00etan, ofizialki. □



Iazko txupinazoan plaza lepo bete zen.

Hernaniko Kronikak gaur bete ditu 2 urte

HERNANIKO Kronika 2000ko ekainaren 23an sortu zen, Dobra Euskara Elkarteen eskutik. Euskal Herriko lehen herri egunkaria, herri-komunikazioa landu eta eguneroko errealitatea herritarrei zabaltzeko helburuarekin sortu zen eta bide beretik jarraitu nahi du.

Gaur egun 2.800 ale dira Hernanin egunero banatzen direnak (sortu zenean 1.700 ziren), eta kopuru horrek gorako joeran jarraitzen du. Hernaniko Kronika astean 5 egunetan argitaratzen da (ostegunetik astelehenera); eta aurrerako helburu nagusia astean sei egunetan argitaratzea da. □

GAURKO EGITARUA

09:00- Haurren marrazki lehiaketa.
09:30- Bola Txapelketa.
10:00- Uso tiro txapelketa.
10:30- Apar jaialdia Biterin.
10:30- Atleta osoaren proba.
11:00- Urumea ikastolako fanfarrea.
11:15- Axeri Dantzako bost belaunaldiari omenaldia.
12:00- Txupinazoa.
12:00- Urumea txaranga.
17:00- Haurren auresku dantza.
18:00- Elektro Tunaren irteera.
18:30- San Joan erronda.
19:30- Akelarrea.
19:30- Parrokiko korua.
20:00- Salbe Nagusia San Joan Bataiatzailearen elizan.
20:30- Hernaniko Musika Bandaren eskutik 'San Joan' martxa.
21:30- San Joan sua
22:00- Santa Barbara elkarteko tanborrada.
23:00- Trakets-ekin dantzaldia.
23:00- Molotoff-eko txosnan dantzaldia.
01:00- Xalaparta txaranga.

ARALAR
TABERNA
ZAPA KALEA 8, Tel. 943 33 15 06

ADARRAGA
Konfitegia
Pasteldegia
GORA SAN JOAN
Urbietan Etorbidea 7
☎ 943 55 09 10

Adarraga
HERNANI (Gipuzkoa)

ETXARRI
www.etxarri.com
Juan de Urbietan etorb. 8 Tel. 943 33 61 16
Ondo pasa San Joanak
Gora San Joan

LAND ROVER
Gipuzkoarako eskusiban **LAND ROVER** kontzesionario ofiziala.
EUROLAN 4 x 4 (VOLVO ondoan) - ☎ 943 33 10 06

Arrigoain jatetxea

- Eguneko menua
- Plater konbinatuak
- Karta

Ondo pasa SAN JOAN Jaiak

Santa Barbara 87 (Harrobian)

☎ 943 55 00 97

-Astelehen eta astearte gauetan itxia-

SANTA BARBARA
PEUGEOT
Tailerrak: Larramendi 15 - Exp: Arantzazu 15 - Tel. 943 551 139 - 943 551 979
Auto eta furgoneta zaharrak, 2. eskukoak aldatzen ditugu

Opel Astra Carvan		NA-AK
Peugeot 205	5 ate	SS-AV
Citroen AX	Diesela - 5 ate	VI - L
Opel Corsa	5 ate	SS-AK
Volkswagen Polo	6 ate	SS-AJ
Renault Express	Diesela	SS-AS
Mercedes Furgoneta	Diesela	SS-AH
Seat Ibiza	Diesela	SS-AJ

.....eta hainbat kotxe merke.

■ PALANKARIAK



Goian, ezkerretik bosgarrena, Aitor Olaizola irabazlea. Behean erdian, Joseba Laburu hernaniarra.

Aitor Olaizola irabazle, palanka 42 metroan botata. PALANKARI txapelketa jokatu zen atzo, Antziolako atletismo pistan. Aitor Olaizolak irabazi zuen Fernando Dublan eta Joseba Labururen aurretik. 3,5 kiloko palanka 42 metro eta 39 zentimetro bota zuen Olaizolak; Dublanek 38,58 metro; eta Laburuk 31,58. Beteranoetan Euskal Herriko txapelketa jokatu zen eta Jose Ramon Gonzalezek irabazi zuen (28,13 m); bigarren J.L. Olaizola (23,15). Emakumeena Amaia Dublanek irabazi zuen (24,80); bigarren Edurne Olaizola. Sariak Etxeberri soziedadean eman zizkieten.

■ ARRAUNA



Pedreñako eta Hernaniko arraunlariak eta Udaleko ordezkariak, atzo, sari banaketan.

Hernaniko bandera Pedreñara. PEDREÑAK irabazi zuen atzo Hernaniko Bandera. Orion jokatu zen eta 10 traineru lehiatu ziren. Pedreña lehenengo (21'05"90); 2garren Zarautz (21'20"46); eta 3garren Orio (21'21"07). Hernani 9garren sartu zen (22'21"44). Saria Hernaniko udaletxean jaso zuten, Manuel Fraile hirigintza zinegotziaren eskutik. Hernanin arraunaren alde lan egiten dutenak omendu zituen sari banaketan Udalak, eta Martin Zulaikari oroigarri bat eman zioten.

aukera ezazu zure lanbidea Cebanc-Cdearekin	
Informatika	Administrazioa
INFORMATIKA-SISTEMEN ADMINISTRATZIOA INFORMATIKA-APLIKAZIOEN GARAPENA	ADMINISTRATZIOA ETA FINANTZAK A ETA D EREDUAK ADMINISTRATZIO-KUDEAKETA (EM) IDAZKARITZA
Merkataritza eta Marketina	Ostalaritza eta Turismoa
NAZIOARTEKO MERKATARITZA MERKATARITZA-KUDEAKETA ETA MARKETINA MERKATARITZA (EM)	JATETXE-ARLOA SUKALDARITZA (EM) BIDAI AGENTZIAK OSTATU-ARLOA JATETXE ETA TABERNAKOZERBITUAK (EM) TURISMO-INFORMAZIO ETA MERKATARITZA
 Paseo de Berio 50 • 20.018 San Sebastián • Tel.: 943 316 900 • Fax: 943 316 482	

HERNANI
HIZKUNTZAK
HERNANI ENGLISH
(Gure Ingelesetxea)

- Udarako matrikula eta 2002-03 kurtzorako aurrematrikula:
**ekainaren 27, 28 eta
uztailaren 1ean.**

- 2002-03 kurtzorako matrikula:
Irailaren 9tik aurrera

Informazioa eskatzeko:
Deitu Alan / Joe: 943 33 11 08
KALE NAGUSIA 41, 1
Zorionak eta Gora San Joan

■ HITZ BITAN

✓ JUBILATU ETXEA

San Joanetako ekintzak asteartean. Jubilatu etxeak San Joan festak ospatuko ditu datorren asteartean. Goizeko 10:00etan toka, igel eta bote txapelketak izango dira; 11:45etan sari banaketa eta 12:00etan *luntxa* (programan ez dator), Jubilatu etxeko bazkideentzat eta Udaletxeko arduradunentzat. Gaueko 22:00etan berbena izango da, Jubilatu Etxean bertan.

✓ ANSORENATARREI OMENALDIA

Ansorenatarren etxean oroigarri plaka. Hernaniko Leokadisti etxean (Dorronsoro okindegia dagoen horretan) jaio ziren Ansorena txistulari famatuak: Joxe, Ixidro, Fernando... Hernaniri izugarri eskaini diote urteetan zehar. Horregatik, musika eta txistulari bandak oroigarri plaka jarriko du beren jaiote-txean, Leokadistin. Bihar, 09:00etan.

✓ ATLETA OSOA

Bizikletan, korrika eta zaku altxatzen. Atletia osoa proba gaur jokatu da, San Joan festen barruan. Goizeko 10:00etan hasiko da Urbieta kalean.

† PASCUALA NARVARTE ZUBILLAGA

(Juan Tomas Vergararen alarguna)
Ekainaren 22an hil zen, 76 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.



- Goian Bego -

Bere seme-alabak: Jose Antonio eta Maritxu Gabirondo, Javier eta Coro Lujanbio, Jose Felix eta Milagros Gabirondo, Valentin (Andrea Martiren alarguna), Rosi Salagre (Carlos Vergararen alarguna), Milagros eta Ramon Fernandez, Jon eta Rosa Comin eta Pabxi eta Mari Carmen De Castro; bilobak: Igor, Egoitz eta Nagore; Xabier, Mikel eta Olatz; Alaitz eta Xabier Zabala, Iker eta Eneko; Gorka; Maider; Ion eta Zuhaitz; Nerea; eta Leire; anai-arrebak, ezkon anai-arrebak, ilobak lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde otoi bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezte! ASTEARTEA, 25ean, arratsaldeko ZAZPIRETAN, JUAN BATAIATZAILA parroki elizan, egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Helbidea: Santa Barbara 24-behea Ezk. Hernanin 2002ko Ekainaren 23an
OHARRA: Gorputza beila DONOSTIALDEA TANATORIOAN, Errekalde auzoan dago. Gorputz laguntza bere familiokoen artean egingo da.

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

- Taxiak: 943 550093
- Udaltzaingoa: 943 333288
- DYA: 943 464622
- Autobusak: 943 556662
- Anbulatorioa: 943 006666
- Jokalaria anonimoak: 943 331103

☎ FARMAZIAK

- Egunez: Bilbao-Sagastiberri Urbieta 7
☎ 943 552941
- Gauez: Zatarain Andoain. Arteta z/g
☎ 943 290802


IRAGARKI MERKEAK

- Pertsona euskaldun bat behar dugu etxeko lanak egiteko eta 2 haur zaintzeko. Interesatuak deitu: **943 55 29 41**.

- Pelukera laguntzailea behar da Hernanin. Presazkoa da: **943-55 63 68**

- Testigu bila nabil. 2000 urteko urriaren 11n Loiolako autobus geltokiko akzidentea ikusi zuena (emakume bat erori zen autobus gorritik). Zerbait gogoratzten duenak deitu: **943 55 07 42** (eskertuko zaio).

- Furgoneta salgai: Ford Transit, ekipatua Westfalia, 1988. Miloia. **943-55 30 23** eguerdian, **687 70 91 10**, 21:00tik aurrera.

			
URUMEA Autoak - Auto HERNANI			
SEAT ETA OPEL ZERBITZU OFIZIALAK			
Kotxe berri eta aukerakoan salmenta		Finantziatzioa	
Taller mekanikoa eta elektrizitatea		Karrozeria	
URUMEA AUTOAK		AUTO HERNANI	
Akarregi auzoa 25 - 943 332274		Akarregi auzoa 25 - 943 552546	

epele

Produktu Kimikoak

Hernaniar guztioi San Joan jai on batzuk pasa ditzatela opa diegu!

GORA SAN JOAN

Comercial Epele, S.L. - Epele bailara 6- Tel.:943 556358-943 555162 - Faxe: 943 553985
20120 HERNANI - E-mail: comepele@euskalnet.net


ZUMARDI
ORDUTEGI BERRIA
Astelehenetik igandera
eguerdian zabalik.
Osteguna, ostirala eta
larunbatetan gauean ere
zabalik.

Orkologa 2 A - Tel. 943 33 60 56
www.zumardi.com / info@zumardi.com

AMEGAR, c. b. ETXE TRESNAK

SUKALDE ALTZARIAK
HORMA ARMARIOAK
Neurrira egiten ditugu.
Izpizua 27

ELEKTROGAILUAK -TB -
BIDEOAK - HI-FI - OPARIK

Ondo pasa San Joan jaiak.
GORA HERNANI

Txirrita kalea 15
Tel 943 551125 - Faxe 943 551603